



## ABONO EGOKITUA

### 5. KANALAK

Gure enpresak bi kanal mota izango ditu. Alde batetik, kanal zuzena erabiliko dugu eta beste aldetik, kanpo kanala beharko dugu.

Kanal zuzena izango da saltzaile lantalde batek sortuko duelako, hau da, bitartekaririk ez du izango; izan ere, enpresa bera izango da bezeroarengana joango dena haren lurra aztertu, dituen beharrak identifikatu eta haren beharren arabera abonoa sortzeko.

Beraz, prozesua ondorengoa izango da: Lehendabizi, gure abonoa nahi duten pertsonak deitu egingo digute eta espezializatu batek bere lurra aztertu, beharrak ikusi eta berari dagokion abono egokitua ekoitziko dugu. Ondoren, beste espezializatu batak abonoa ekoitzi egingo du eta behin ekoitza dagoenean, transporte enpresa batek abono hori dagokion pertsonari garraiatuko dio.

Kanpo kanala ere behar izango dugu, izan ere, beste enpresa bat kontratatuko dugu abonoa bezeroei eramateaz arduratuko dena, beraz, kanpo kanala abonoa banatzeko erabiliko dugu.

Bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, enpresaren web orri bat izango dugu eta horrez gain, telefono zenbaki bat ere izango dugu.